

Albisteak



Euskara Justizi Administrazioan. Hausnarketa jardunaldiak

Joan den urteko abenduaren 18 eta 19an ospatu ziren jardunaldi hauek Gasteizko Europa Biltzar Etxean. Antolatzaile izan ziren: Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorra; Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila; Hizkuntza Politikarako Sailordetza; EAEko Auzitegi Nagusia eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE).

Jardunaldien ardatza Justizi Administrazioan euskarak bizi duen egoera aztertzea izan zen.

Hartarako hainbat ikuspegitatik aztertu zen egoera hori: *Auzitegi Nagusiko Gobernu Salaren euskara mailako jarduerak* landu zituen Manuel ZORRILLA jaunak; orokorki, *euskara eta mundu juridikoa*-ri buruz aritu zen Ander URRUTIA; Josu ERKOREKA eta Joaquín BAYOri egokitu zitzairen *Hizkuntz Koofizialen egoera konstituzionala eta legezkoa* aztertzea; *Hizkuntza normalizatze ibilbideak Justizi Administrazioan beste autonomia erkidegoetan* izan zituen hizpide Angel AURREKOETXEA andreak eta *Euskara juridikoaren ikasprozesuei* buruz hausnarketa egin zuten hainbat erakundetako ordezkariak. Arratsaldean mahai-inguru bi antolatu ziren: *Testuinguru legalari*

buruzko bestelako iritziak eta *Egungo arazoan azterketa eta aurrera begirako jarduera-proposamenak* biltzeko, non epaile, fiskal, idazkari, abokatu eta erakunde sindikalen ordezkarien iritziak bildu nahi izan ziren; ez ziren jardunaldietara agertu, ordea, gonbitea egin zitzairen arren, APMko kideak (Asociación Profesional de la Magistratura).

Dudarik ez, mahai-inguru ostean mahaikide eta entzuleen artean izandako debatea aberatsa eta argigarria izan zen oso, balio izan baitzuen euskararen normaltze prozesuari dagokionean operadore juridiko desberdinen jarrera ozenki azaltzeko.

Bestalde, Justizi Azpisailak txosten landu bat aurkeztu zuen, non zenbait datu jasotzen baitiren: hizkuntzaren gainean Estatu mailan eta baita beste Estatu eleanitzetan ere ekoiztutako lege eta jurisprudentzia hautatuari buruzkoak; Justizia Administrazioan euskarari buruz egindako inkesta; abokatu eta lizentziatu euskaldunen kopurua; euskaraz dauden formulario eta inprimakiak eta abar.

Jardunaldien ondorioen artean, Justizia sailordetzak operadore juridikoen ordezkarien arteko **batzorde bat sortzeko** hartutako konpromezua nabarmen daiteke, **Justizia Administrazioa euskalduntzeko lerro orokorrak** jartzearen ardura izango duena.

Justizi Administrazioko euskarari buruzko Hausnarketa Jardunaldiak. Ondorioak.

1. Egoera soziolinguistikoari buruzko gogoeta

Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa homogenea ez bada ere, azken urteotan euskaldunen portzentaia nabarmen igo da Autonomi Erkidegoko eskualde guztietan. Hori dela eta, zerbitzu publikoa -zerbitzu judizialak beste- euskaraz jaso dezakeen populazioa ere gorantz doa piskanaka, eta zerbitzuok euskaraz jaso ditzaketenen kopuru hori areagotu egin da, noski, euskaldun kopuruaren portzentaia handiago den eskualdeetan.

Euskal gizartean euskarak duen gorantzako joera hau alde batera utzita, euskal hiztunak euren hizkuntz eskubideez jabetuz doaz, gero eta gehiago gainera, eta horren ondorioz euskarazko zerbitzu publiko judizialen eskaria bera ere areagotu egin da.

Urte batzuk dira Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Zuzenbide fakultateetako ikasketa planetan euskarazko irakaskuntza sartu zela. Ondorioz, urtez urte haziz doa euskara hutsean lan egiteko kapaz diren Zuzenbideko profesionalen kopurua. Euskal Herri-Administrazioek ere, hizkuntz normalizaziorako plangintzen bidez eta hizkuntz formakuntza prozesuak antolatuz, hainbat letraturi eman diote hizkuntz trebetasuna, nork bere lana euskaraz egiteko behar den bestekoa.

Euskarazko terminologia juridikoaren alorreko erakundeak, bestalde, lan handia egiten ari dira euskarari alor juridikoan tokia egiteko, eta zehaztasunez eta kalitatez egin ere.

Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofizial bietako baten erabilera ez dago normalizaturik oraindik eta arazoak dakartza Justizi Administrazioan, bai bere erabiltzaileentzat, bai Administrazioaren beraren ohiko jardunerako. Ez dago zalantzarik, hortaz, euskararen erabilera normalizatzeko prozesuari ekin beharra dagoela Justizi Administrazioan.

2. Gaur egungo egoeraren azterketa

- Justizi Administrazioaren zerbitzurako pertsonala Justizia alorrean hizkuntza normalizatzeko prozesuan sartzeko prest dago.
- Justizi Administrazioaren zerbitzurako pertsonalaren transferentziaren prozesuak eta Justizi Sailak eta sindikatuek sinatu berri duten akordioak hizkuntza normalizatzeko plan bat antolatzeko bidea erraztu dute.
- Hizkuntza normalkuntzan eskumena duten erakundeek burututako egintzen sistematizazio egoki baten gabezia somatu da orain arte. Honako hauek nabari dira bereziki:
 - Ez dago hizkuntza normalizatzeko plan integralik.
 - Euskara ezagutzaren baloraziorik eza epaile, fiskal eta idazkari judizialen aukeraketan eta lanpostu hornikuntzan.
 - Lanpostuari lotutako hizkuntz eskakizunik eza, euskaldundu edo alfabetatu beharreko pertsonala aukeratzeko irizpide izango dena, nahiz eta erakundeek euskaraz trebatzeko borondatezko eskariari erantzun dioten, zerbitzuaren beharrak direla eta egon daitezkeen mugen barruan, beti ere.
 - Langileak ikasi berri duen hizkuntzan trebatzeko baliabideen aurreikuspenik eza.
 - Beren lana bi hizkuntzetan egiteko gaituta dauden langile elebidunengandik ez da ahal bezain onura onik ateratzen.

3. Aurrera begirako jarduera proposamenak

3.1. Orokorrak

- Justizi Administrazioak (Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrak, Justizi Ministeritzak, egungo eskumenak dituen bitartean, eta Eusko Jaurlaritzak) Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu eta bide horretan sortzen diren oztopoak saihestu behar ditu.
- Euskara Justizi Administrazioan komunikaziorako ohiko tresna izatea lortu behar da, bertara jotzen duten herritarren eskaerei behar bezala erantzunez eta beharrezko eta egokitzat jotzen diren bitarteko material zein pertsonalak jarritz.
- Euskararen aldeko jarrerak sustatzeko kanpainak antolatu behar dira Justizi Administrazioan.

3.2. Esparru judiziala

- Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrak lehenbailehen garatu behar du erregelamenduz Aginte Judizialaren Lege Organikoaren 341. artikulua.
- Aginte Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikuluan xedatutakoari jarraiki, alderdietako batek prozesurako euskara aukeratzeko duenean, Epaitegitik igorriko zaizkion jakinarazpen guztiak aipatutako hizkuntzan idatzi beharko lirarteke.
- Komenigarria da Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrak eta Eusko Jaurlaritzak Justizi Administrazioan hizkuntza normaltzeari buruzko hitzarmen bat sinatzea.

- Onuragarri irizten zaio Autonomi Erkidegoko organo judizial jakin batzuetan euskara ezarri eta sustatzeko esperientziak lehenbailehen abian jartzeari.

3.3. Bitarteko pertsonalen esparrua

- Hizkuntz gaitasunari, euskararen ezagutzari eta ikasprozesuaren eta hizkuntz normalkuntzaren aurrean dauden jarrerei buruzko inkestaren emaitzak ikusita, lehentasunezko arloak zehazteko azterketa bat egin eta Justizi Administrazioaren zerbitzurako pertsonala euskaldundu behar da berandu baino lehen, kasuan kasuko hizkuntz mapa kontuan izanik.
- Helburuak, lehentasunak, epeak e.a. zehaztuko dituen Justizi Administrazioako normalizazio plan baten diseinua, pertsonalaren ordezkariekin adostutakoa.
- Plana onartu eta abian jarri arte, organo judizial bakoitzean euskara jakitea beharrezko duten lanpostuak zehaztea, aldi baterako, Autonomi Erkidegoko hizkuntz maparen arabera.
- Epaile, magistratu, fiskal, idazkari judizial eta Justizi Administrazioaren zerbitzurako pertsonalak euskara ikasteko eta euskaraz trebatzeko sistemak sustatu behar dira.
- Aurrekoaren ildotik, izaera judiziala duen zenbait zeregin egoki burutzeko trebetasun pasiboek duten garrantzia kontuan hartuta, komenigarri litzateke aipatutako funtzioak betetzeko beharrezko diren hizkuntz trebetasunen mailak aztertzei eta zehazteari ekitea, prestakuntza programa espezifikoak antolatu ahal izateko.

3.4. Bitarteko materialen hornidura esparrua

- Gaur egun aztertze eta berraztertze fasean dauden agirien bilduma guztiak sistema informatikoan bizkorrago inplementatzea lortu behar da.
- Gai juridikoei buruzko terminologia eta esaldi bilduma osatu eta hedatu behar da; halaber, lege testurik erabilienak euskaratu eta argitaratu behar dira.

3.5. Esparru instituzionala

- Terminologia eta lexiko juridikoaren inguruko zalantzak argitu eta gaztelerazko baliokideak emateko aholkularitza organo misto baten instituzionalizazioa proposatzen da.
- Justizia arloan eta hizkuntza koofizialean erabileraren normalizazioan eskumena duten erakunde guztiak bilduko dituen erakundearteko batzorde bat eratzea proposatzen da, Justizia esparruan normalizazioarako batzorde izango dena.

Gasteizen, 1997ko abenduaren 19an

Aintzintasun meritua epaile euskaldunari

Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorreko Ikerketa eta Txostenetarako Batzordeak Karrera Judizialaren Erregelamendua aldatzeko proposamen bat aurkeztu berri du. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 341 artikuluan oinarritzen da arau hori, zeinak baitio: "1. Para la provisión de las plazas de Presidente de los Tribunales Superiores de Justicia y de las Audiencias, en aquellas Comunidades Autónomas que gocen de Derecho Civil Especial o Foral, así como de idioma oficial propio, el Consejo General del Poder Judicial valorará como mérito la especialización de estos Derechos Civil Especial o Foral y el conocimiento del idioma propio de la Comunidad. 2. Reglamentariamente se determinarán los criterios de valoración sobre el conocimiento del idioma y del Derecho Civil Especial o Foral de las referidas Comunidades Autónomas, como mérito preferente en los concursos para órganos jurisdiccionales de su territorio."

Artikulu horren 2. atala garatzen zuen Erregelamendua APM elkarteak errekurritu ondoren, Auzitegi Gorenak 1995eko apirilaren 29ko Sententzian erabaki zuen hizkuntza koofiziala ezagutzeak 6 urteko aitzinatasuna izatea ez zela ondo ezkontzen Foru Zuzenbidearen ezagutzari ematen zitzaion puntuazioarekin (3 urte).

Txosten berriaren proposamenean aurrirakusten da 3 urteko aitzinatasuna gehituko zaiola hizkuntza propioa ezagutzuz, hizkuntza hori erabiltzen den Erkidego Autonomoan trasladoo eskatzen duen magistratuari, organo kolegiatu baterako trasladoo eskatu badu; magistratuak betetako pertsona bakarrek organoa denean berriz, 2 urte; eta azkenik, epaile funtzioak betetzen dituen organo pertsona-bakarrekotarako urte betekoa. Foru Zuzenbidearen ezagutza ziurtatzen duenarentzat meritua baloratzeko modua, hizkuntzarekin erabiltzen dena bera izango da.

Ofiziozko laguntza txanda euskaraz

Gipuzkoako Abokatu Kolegioak otsailean jarri zuen abian euskarazko ofiziozko laguntzaren txanda. Bertan 75 abokatuk eman dute izena. Kolegioan 1.450 letratuko zerranda orokorra zegoen orain arte ofiziozko txandarako.

Hemendik aurrera, sarrera ekonomiko nahikorik ez duenak Orientazio Juridikoko Zerbitzura jo ahal izango du eta berak nahi izanez gero, euskarazko defentsa emango zaio.

Abokatu Euskaldunen Sindikatua

Euskarak Justizia Administrazioan bizi duen egoera salatu eta normaltze bidean jartzeko bitartekoak eskatzeko asmoz jaino zen joan den urteko azaroan Abokatu Euskaldunen Sindikatua. Aurkezpena azaroaren 26an egin zen Bilbon.

Sindikatuak Abokatu Kolegioen osagarri izan nahi duela esan zuen Luis Barinagarrementeria Gipuzkoako ordezkariak. Elkarte Euskal Herri osoan arituko da. EAEn, elkarte sindikalerako eskubideari buruzko 19/ 1977 Legearen ildo jarraitu da Sindikatua Eusko Jaurilaritzako erroldan inskribatzeko. Nafarroan ere izapide bera jarraitu ostean, elkarte biak federatzeko asmoa dago. Iparraldean, berriz, Sindikatua ofizialki errotzeko "Estatuaz gaindiko elkarte" bat sortu beharko da.

Arabako abokatuak euskara juridikoa ikasten

Iban Picatoste Arrue, Euskara Batzordeko arduradunaren eta Gasteizko Abokatu Kolegioko legelari euskaltzaleen ekimenez sortu zen joan den urtean Euskara Batzordea.

Batzordearen lehen ekimena euskara juridikoko ikastaro bat antolatzea izan da, interesa duen legelari ororentzat irekia eta ikasturte osoan zehar luzatuko dena. Irakasle Martin Gartzandia jauna dugu, Zuzenbidean lizentziatua eta HAEEn langilea.

Dagoeneko hasia da ikastaroa eta lan talde bat ari da eskolak Kolegioan bertan jasotzen.

"Jalgi" web orria eta MCCko Enpresaren Institutu berria

Jalgi web orriak MCCko Enpresaren Institutuaren orrirako sarrera ematen du. Dokumentazio juridikoz osatuta dagoen web hau EMUN kooperatibak eskaintzen duen zerbitzuetako bat da. Bertan, arauak eta boletinak, formulario edo ereduak, iritzi artikuluak, azken orduko albisteak, liburutegi osatu bat eta orotariko informazioa aurkituko dituzu. Dokumentazioaz gain, gaiaren inguruko edozein boletín, arau edo txosten eskatu ahal izango duzu. EMUNek beti ere lan hizkuntza euskara izan dadin ahalegin berezi bat eginez, "Aholkularitza Juridikoa" eskaintzen du, Zuzenbideko alor guztien inguruan sor daitezkeen zalantza eta arazoak konpontzeko.

Http://jalgi.com
E-mail: emun@jalgi.com
(Iturria: LARRANAGA, A. Euskara arduraduna)

Euskal deituren izendegia

Euskaltzaindiak ia 9.000 abizenen euskarazko grafia gomendatzen duen txosten bat kaleratuko du aurki. Abizenaren grafia egokitu ahal izateko erregistro zibileko bidea errazteko bitartekoak jarri nahi izan ditu. Liburu hori erregistroetan egongo da bertan kontsultatu ahal izateko, akademiaren banakako ebazpenaren zain egon beharrik gabe.

Euskaltzaindiak ahalegin berezia egin du lan hori prestatzen, deiturak euskaratzeak duen garrantzia dela eta. Horregatik, deituren izendegia kaleratzeaz gain, lege aldaketa bat ere proposatu du Xabier Markiegi Aratekoaren bitartez, tramitea Erregistro eta Notaritzaren Zuzendaritza Orokorretik lekuko erregistroetara ekartzeko. Justizia Ministeritza eta Jaurlaritzak lagunduta, laister kalean izango da izendegia.

(Iturria: FERNANDEZ, L. *Izena Libreki Hautatzeko Oztopoak*, Euskaldunon Egunkaria, 1998ko urtarrilaren 25a)

Bibliografia

Monografiak


AGIRREGOITIA ARETXABALETA, A., *Hiri antolaketarako eremuen izendegia*, Hirigintza eta Ingurugiro Saila, Gipuzkoako Foru Aldundia, HAEE, l.g. 1997.



CARBONELL, A., *Biolentzia estatu arrazoiaren diskurtsoan*, Filosofia Saila, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1997, 162 or.

1995eko uztailan Udako Euskal Unibertsitatean Filosofia Sailean emandako hitzaldien bilduma honetan jasotzen dira: IRIARTE J. *Arrazoiak edo arrazoirik gabe estatua bortxa da*; PAGAZAURTUNDUA, M. *Biolentzia eta biktimismoa: euskal nazioaren eraikuntzaren bi aurpegi*; ETXART, A. *Estatuko biolentzia, justizia eta zigorgabetasuna*; ITURGAITZ, K. *Zuzenbide estatua: segurtasuna, askatasunaren bermea*; OLIBERI, I. *Biolentzia eta euskal nazio askapenaren prozesua*; RAMIREZ DE LA PISCINA, T. *Mezubideak eta kazetariak euskal gatazkaren aurrean*; VALENCIA, J.F. eta REIZABAL, L. *Bakearen diskurtsoa eta estatua vs. Nazio identifikazioak*; ANTJUSTEGI, E. *Foruen abolizioa, estatu-nazioaren eraikuntza eta ideologia liberala*; IDOAGA, I. *Errepresio politikoa emakumearengan*; EGANA, I. *Gerra zikiña: estatuaren beharra*; IZAGA, R. *Bortxa eta arrazoa estatuko kontzeptuan*; RODRIGUEZ, F. *Tolerantzia, errealitate birtuala eta biolentzia*.

HAEE, *Euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza normalkuntza: legeria eta jurisprudentzia hautatua*, Administrazioa euskaraz Saila, HAEE, Oñati, 1997, 312 or.



1982tik hona lege eta dekretu ugari dira euskarari Administrazio Publikoan sarbidea emateko. Eta, hain zuzen ere, legedia hori da argitara berri den liburu honetan bildu dena. Egiturari dagokionez, lehenik eta behin, Administrazio orokorrari dagozkion legeak jasotzen dira, eta ondoren, honako hauek: irakaskuntza, Ertzaintza eta osasun arlokoak. Azken zatian, euskararen inguruan emandako hainbat epai. (Iturria: HAEE- Argitalpenak)

ZELAIA, A., *Kooperatibak Euskal Herrian*, UEU, Bilbo, 1997, 125 or.

(Edukia:) Sarrera. Euskal lankidetzaren baloreak. Gizartea eta politika Euskal Herrian. Kooperatiben kokapena. Arrasateko taldea euskal garapenean. Arrasateko taldetik kanpoko lan-kooperatibak. Lan-kooperatibagintza, euskal lankidetzaren berezko ezaugarria. Hezkuntza-kooperatibak. Ikastolak. Beste motatako kooperatibak. Kontsumoa (Eroski), etxebizitza, nekazaritza, kreditua. Euskal kooperatiben eta hauen antolakuntza-egituren legezko arazoak. Euskal Kooperatiben geroa.

Artikuluak

ALBIZU, E.; BARRUTIA, J.; BASTERRETXE, J.; JAUREGI, J.F.; LANDETA, J.; MITXEO, J., "Euskal Enpresa eta lankidetzak-akordio batzuk", *Uztaro*, 21. zkia., 1997, 35-43 orr.

ANGULO, A., "Kontrabandisten aurkako neurriak XVIII. Mendeko Euskal Herrian: *lege-sakratuen* desagertzea", *Uztaro*, 21. zkia., 1997, 45-67 orr.


ARRATIBEL ARRONDO, J., "Eusko Jaurilaritzako



aurrekontuaren finantzaketa: 1997-2001 artean Foru Aldundiek egin beharreko ekarpenen araudia", *RVAP*, 48. zkia., 1997, 43-82 orr.

URRUTIA BADIOLA, A., "Atzerri, otserri", *UD Berriak*, 56. zkia., 1997, 20 orr.

URRUTIA BADIOLA, A., "Gerra aurreko euskal terminologia juridikoa: J.B. Eguzkitzaren *Gizarte-auzia* (1935)", *Karmel*, 220. zkia., 1997, 50-84 orr.




Itzulpenak

CAPILLA, F.; LÓPEZ, A.M.; ROCA E; VALPUESTA, M.R.; MONTÉS L. (koor.), *Oinordetza zuzenbidea*, Itzulpenaren koordinatzaileak: A. Lobera eta A. Urrutia. Itzultzaileak: M. Dobaran, J. Etxebarria, K. Isusi, B. Landa, E. Urrutia. Oharrak: A. Atxabal. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1997, 766 orr.



EIZAGIRRE, J.; GORROTXATEGI, E. eta IRIBAR, M., *Udal espedienteak: Jabari publikoko ondasunen kalifikazioa eta aldaketa*, Ondasunak, Udal espedienteak seriea 1, HAAE, Oñati, 1997.

HAAE, EKGK (Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua), *Nazioarteko kooperatiba aliantzak kooperatiben nortasunari buruz egindako aldarrikapena (Kooperatiben Printzipioak)*, HAAE, Oñati, 1997.



MONTÉS, V.L. eta ROCA, E. (koor.), *Familia zuzenbidea*. Itzulpenaren koordinatzaileak: A. Lobera eta A. Urrutia. Itzultzaileak: M. Dobaran, J. Etxebarria, K. Isusi, B. Landa, E. Urrutia. Oharrak: A. Atxabal. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1997, 708 orr.

EIZAGIRRE, J.; GORROTXATEGI, E. eta IRIBAR, M., *Udal espedienteak: Ondasuna doan lagatzea*, Ondasunak, Udal espedienteak seriea 2, HAAE, Oñati, 1997.




PARADA, R., *Administrazio zuzenbidea II. Antolaketa eta enplegu publikoa*. Itzulpenaren koordinatzaileak: A. Lobera eta A. Urrutia. Itzultzaileak: I. Etxebarria, E. Gaminde, N. Munitxa. Oharrak: C. Gallastegi, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1997, 567 orr.



EIZAGIRRE, J.; GORROTXATEGI, E. eta IRIBAR, M., *Udal espedienteak: Udalaren ondare-ondasuna saltzea*, Ondasunak, Udal espedienteak seriea 3, HAAE, Oñati, 1997.

PARADA, R., *Administrazio zuzenbidea III. Ondasun publikoak. Hirigintza Zuzenbidea*. Itzulpenaren koordinatzaileak: A. Lobera eta A. Urrutia. Itzultzaileak: E. Gaminde, N. Munitxa. Oharrak: C. Gallastegi, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1997.

TOURAINÉ, A. "Arrazakeria gaur egun", Itzultzaileak: J. Osa, *Uztaro*, 22. zkia., 1997, 81-96 orr.



ZA, *Trafiko, zirkulazio eta bide segurtasunerako Legeria (1. liburukia)*, HAEE, Oñati, 1997, 255 or.

ZA, *Trafiko, zirkulazio eta bide segurtasunerako Legeria (2. liburukia)*, HAEE, Oñati, 1998

Hizkuntza

ATXABAL, A., GALLASTEGI, C., GOIKOETXEA, L., LOBERA, A., URRUTIA, A. eta URRUTIA, I., *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*, 2. argitaraldia, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1997.


HAEE-EKGG (Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua), *Kooperatiba hiztegia*, HAEE, Oñati, 1997.



HAEE, *Euskadiko Agintaritzaren Egunerokoa (1936ko urritik 1937ko ekainera). Hiztegia*, HAEE, Oñati, 1997, 569 or.

SARASOLA, I., *Euskara batuaren ajeak*: Saiakera saila 8, Alberdania, Irun, 1997, 283 or.

Orokorrean euskara batuaren auzia aztertu nahi bada ere, badira saiakera honetan egungo Zuzenbidearen hizkerarekin



zerikusi zuzena duten zenbait terminoren egokitasunaren gaineko zalantzak, argudioak eta aukera desberdinak azalduz.

ZA, *Terminologia, nazioarteko biltzarra*, Azaroaren 12, 13 eta 14an Donostiako Miramar jauregian ospatutakoa, HAEE eta UZEI, l.g., 1997, 864 or.



Biltzarrean aurkeztu ziren hitzaldi eta komunikazioen bilduma honetan badira Zuzenbidearen hizkerari erreferentzia egiten dioten zenbait lan: OLAIZOLA, M. *Administrazioko hiztegia:*

normalizazio-bidean emandako urratsa; LOINAZ, M. *Terminologiako Datu Bankuak: EUSKALTERMen diseinua eta kudeaketa*; AZKARATE, M. *Euskal terminologiaren egoera*; EUSKARA JURIDIKOAREN MINTEGIA, *Terminologia, itzulpena eta diskurtso juridikoa: euskararen kasua*; ELOSEGI, A. *Lege-testu itzulietako euskal terminologiaren hustuketarako metodologia*; OSÉS, A. *Informatika juridikoko sistema argentinarreko Thesaurusetik terminologia juridikora: ekarpenak*.

Tesien txokoa*

ALLI TURRILLAS, Juan Cruz: *Militarizazio profesionalaren eta aginte militarren arteko erlazio juridikoa.* D: ZA. F: ZF. U: NU. Ur: 1998. Z: Francisco González Navarro.

ARAMENDI JAUREGUI, Pedro Moisés: *Erreformaren berrikuntzak eta antolakuntza.* F: FHZ. U: EHU. Ur: 1997. Z: Pedro Ayerbe Etxeberria.

AYERRA SOLA, Carlos Esteban: *"Doctor Navarro" ospetsuaren bizitza, Orreagako Errege Etxeko seme.* D: ZK. U: NU. Ur: 1997. Z: Eloy Tejero Tejero.

BARAONA GONZÁLEZ, Jorge: *Obligazioen betetzean atzerapena.* D: ZZ. F: ZF. U: NU. Ur: 1996. Z: Ramón Durán Rivacoba.

BARCO ORTEGA, José: *Manuel Antonio Rojo-ren Gobernu: Filipinak 1761-1764.* D: ZH. F: ZF. U: NU. Ur: 1997. Z: Ismael Sánchez Bella.

BARRIOS BAUDOR, Guillermo Leandro: *Espainiar gizarte segurantzaren sisteman dauden altaren antzeko egoerak.* D: LZ F: ZF. U: NU. Ur: 1997. Z: Antonio Vicente Sempere Navarro.

BAURA DE LA PEÑA, Eduardo: *Dalla Legge dispentsa kanonikoa.* D: ZK. F: ZK. U: NU. Ur: 1996. Z: Juan Fornes.

BESNE MAÑERO, M^a del Rosario: *Estatuen nazioarteko erantzunkizunaren ikuspegi berriak.* F: ZF. U: DU. Ur: 1997. Z: Juan Antonio Carrillo Salcedo.

BUITRÓN ANDRADE, Pablo Fernando: *Euskadiko Kooperatiben Goi Kontseiluaren egituraren azterketa eta funtzioen zehaztapena.* F: ZF. U: DU. Ur: 1997. Z: Alejandro Martínez Charterina.

CABALLERO JUAREZ, José Antonio: *Indietako Karrerako Armaden eraentza juridikoa.* D: ZH. U: NU. Ur: 1996. Z: Ismael Sánchez Bella.

CALVO ÁLVAREZ, Joaquín: *Espainiar eliztar Zuzenbidearen printzipioak Auzitegi Konstituzionalaren epaietan.* D: ZK. F: ZF. U: NU. Ur: 1997. Z: Eduardo Molano Gragera.

DE AMORES CARREDANO, Mariano R: *Erlijio askatasuna Mexikon.* D: ZK. U: NU. Ur: 1996. Z: Jorge de Otaduy Guerin.

DOMÍNGUEZ BETORET, M^a Ángeles: *Irabazpidezko Baltzua eta Erantzunkizun Mugatuko Baltzua.* D: ZZ. F: ZF. U: NU. Ur: 1997. Z: Luis Arechederra Aranzadi.

FERRER MAC-GREGOR POISOT, Eduardo: *Babes helegite konstituzionala. Zuzenbide konparatua: Espainia-Mexiko.* D: ZPr. F: ZF. U: NU. Ur: 1997. Z: Faustino Cordón Moreno.

GARCÍA MARTÍN, Carlos: *Egoitza Santuaren jarduera eta estatutu juridikoa Nazio Batuetan.* D: ZK. U: NU. Ur: 1997. Z: Carlos Soler Ferrán.

GIL MINGUILLÓN, Susana: *Nazioarteko arbitrai litispendentzia.* D: ZPr. F: ZF. U: NU. Ur: 1997. Z: Faustino Cordón Moreno.

GOICOECHEA OLEAGA, Lorenzo: *Saka eskubidea Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibileko Legean.* F: ZF. U: DU. Ur: 1997. Z: Jesús Delgado Echevarría.

GÓMEZ HENAO, Adriana M^a: *Oinarrizko eskubideen jurisdikzio babesaren akzioa Kolonbian.* D: ZPr. F: ZF. U: NU. Ur: 1997. Z: Faustino Cordón Moreno.

GÓMEZ ISA, Felipe: *Garapenerako giza eskubidea nazioarteko arlo juridikoan.* F: ZF. U: DU. Ur: 1997. Z: Victoria Abellán Monrubia.

GÓMEZ ISAZA, M^a Cristina del Rosario: *Interpretazio konstituzionala Espainian. Jurisprudentzia eta doktrina (eredu errealista bat).* D: ZK. F: ZF. U: NU. Ur: 1997. Z: Juan Andrés Muñoz Arnau eta Pedro Serna Bermúdez.

*Laburduren zerrenda:

D: departamentua
F: fakultatea
U: unibertsitatea
Ur: urtea
Z: zuzendaria

Unibertsitateak:

BU: Baionako Unibertsitate Politeknikoa
DU: Deustuko Unibertsitatea
EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea
NU: Nafarroako Unibertsitatea
NUP: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Fakultateak:

ZF: Zuzenbide Fakultatea
FHZ: Filosofia eta Hezkuntza Zientziak
PF: Psikologia Fakultatea

GÓMEZ URQUIJO, Laura Teresa: *Nazioarteko aliantza kooperatiboa, bere garapena erakunde gisa, eta bereziki gizartea aldatzeko bitarteko modura.* F: ZF. U: DU. Ur: 1997. Z: Alejandro Martínez Charterina.

GONZÁLEZ DIESTRO, Miguel Ángel: *Elizaren gobernua Juan Paulo II. ren magisteritzan.* D: ZK. U: NU. Ur: 1997. Z: Antonio Viana Tomé.

GOÑI URRIZA, Natividad: *Erregelamendu (EEE) 4064/89. Enpresen Arteko Konzentrazio Eragiketen Kontrolari buruzkoaren ezargarrtasun arazoak.* U: NUP. Ur: 1996. Z: Alfonso Calvo Caravaca.

HERRÁN ORTIZ, Ana Isabel: *Pribazitatearen norainokotasuna: autodeterminazio informatibo printzipioaren lege garapena. Espainiar Konstituzioko 18.4 artikulua.* F: ZF. U: DU. Ur: 1997. Z: Francisco Manuel Lledó Yagüe.

KARRERA EGIALDE, Mikel: *Landa errentamendu historikoak.* D: ZZ. F: ZF. U: EHU. Ur: 1998. Z: Jacinto Gil Rodríguez.

LARA GONZÁLEZ, Rafael: *Agentzia kontratuaren iraungitze kausak.* U: NUP. Ur: 1997. Z: Juan Carlos Sanz Albisu.

LLAMAS REY, Cristina: *Satelite bidezko komunikazio higikorra eta sistema ez geoestazionarioak: nazioarteko arauketa.* D: NZP. F: ZF. U: NU. Ur: 1996. Z: José Antonio Pastor Ridruejo.

MARTINEZ DE BEDOYA BUXENS, Covadonga: *Ezkontide alargunaren egoera Bizkaiko eta Arabako Zuzenbide Zibil Foralean.* F: ZF. U: DU. Ur: 1997. Z: Jesús Delgado Echevarría.

MIGUEL SANCHA, Carolina de: *Konpentsazio konbentzionala.* D: ZZ. F: ZF. U: NU. Ur: 1997. Z: José Antonio Doral García de Pazos.

NAGORE APARICIO, Iñigo Javier: *Arrasateko taldeko kooperatibetan arlo estatutarioak izandako garapenaren azterketa (bereziki Caja Laboral Popular-ean).* F: ZF. U: DU. Ur: 1997. Z: Javier Divar Gasteizurrecoa.

OLAIZOLA NOGALES, Inés: *Funtzionario eroskeria delitua: funtzionario eroskeria pasiboaren delitua bereziki.* D: ZP. U: NUP. Ur: 1997. Z: Miguel Díaz.

PEREZ BERUETE, Miguel: *Yucatan-eko Kapitain Jeneral-Intendenteak.* D: ZH. F: ZF. U: NU. Ur: 1998. Z: Ismael Sánchez Bella.

PLAZA VENTURA, Patricia: *Komunitatearen funtzio zehatzaile eta administratiboa eta bere aplikazioa partikularrei.* U: NUP. Ur: 1997. Z: José Antonio Corrientes.

RODRÍGUEZ-ROSADO MARTÍNEZ-ECHEVERRÍA, Bruno: *Fiduzia eta bermezko atzeraeskuratzea.* D: ZZ. F: ZF. U: NU. Ur: 1998. Z: Luis Arechederra Aranzadi.

SALAZAR ANDREU, Juan Pablo: *Luis de Velasco, gaztea, erregeordearen Gobernua Espainia berrian (1590-1595) eta (1607-1611).* D: ZH. F: ZF. U: NU. Ur: 1996. Z: Ismael Sánchez Bella.

SAN MARTÍN LARRINOVA, M^a Begoña: *Bitartekaritza zenbait arazo juridiko-kriminologikoei erantzun gisa.* F: ZF. U: DU. Ur: 1997. Z: Antonio Beristain.

SIMANGAN DE LA CRUZ, Stephen S: *Demandaren arbuioaren dekretu apelaezinaren aurkatzea.* D: ZK. U: NU. Ur: 1997. Z: Rafael Rodríguez Ocaña.

TOLLER, Fernando Alfonso: *Babes judizialerako eskubidea eta prentsa askatasuna. Informazioetatik eratorritako kalteen prebentzio judizialaren azterketa konparatua.* D: ZF. F: ZF. U: NU. Ur: 1997. Z: Pedro Serna Bermúdez.

VARONA MARTÍNEZ, Gema M^a: *Bitartekaritza konpontzailea gizarte kontrolerako estrategia gisa. Ikuspegi kriminologiko bat.* F: ZF. U: EHU. Ur: 1997. Z: José Luis de la Cuesta Arzamendi.

YUSTE JORDÁN, M^a Arantzazu: *Zerga zuzenak Nafarroan.* D: FZ. F: ZF. U: NU. Ur: 1996. Z: Eugenio Simón Acosta.

ZABALETA IMAZ, Iñaki: *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza.* F: FHZ. U: EHU. Ur: 1997. Z: Paulino Davila Balsera.

ZABALETA URKIOLA, Mikel: *Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazka politikoak eragindako bortxak duen zentzuaren bila.* F: PF. U: EHU. Ur: 1997. Z: Sabino Ayestaran Etxebarria.

Departamentuak:

FZ: Finantza Zuzenbidea

LZ: Lan Zuzenbidea

MK: Merkataritza Zuzenbidea

NZP: Nazioarteko Zuzenbide Publikoa

NZPr: Nazioarteko Zuzenbide Pribatua

ZA: Zuzenbide Administratiboa

ZF: Zuzenbidearen Filosofia

ZH: Zuzenbidearen Historia

ZK: Zuzenbide Kanonikoa

ZK: Zuzenbide Konstituzionala

ZP: Zuzenbide Penala

ZPr: Zuzenbide Prozesuala

ZZ: Zuzenbide Zibila

Bidean dauden Legeak*

1. Eusko Legebiltzarra

1.1. Lege proiektuak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpena
Gizarte Bazterkeriaren Aurkakoa	97.07.29	143/12216 97.12.11
Arrantzari buruzkoa	97.10.01	150/12932 98.01.30
Zergapideen Elkar-egokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasunari buruzko maiatzaren 30eko 3/1989 Legea Aldatzekoa	97.10.16	151/13061 98.02.06
Eusko Legebiltzarreko Hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990ari Aldaketak egiten dizkiona	97.10.31	145/12456 97.12.19
Lurraren Araubide eta Hiri Antolaketaren arloko Presako Neurriak Zehazteari buruzkoa	97.11.13	145/12456 97.12.19
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioen Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoa	97.12.26	150/12807 98.01.30
Landa Ingurunearen Garapenerakoa	98.01.07	150/12958 98.01.30
"Euskal Irrati Telebista" Herri Erakundea sortzeko Legea Aldatzekoa	98.01.07	151/13074 98.02.06
Energiaren Euskal Erakundea Sortu zuen Legea Aldatzekoa	98.01.19	150/12979 98.01.30
Donostiako erdiko mailako musika kontserbatorioa (Donostia) eta Gasteizko "Jesús Guridi" erdiko mailako musika-konserbatorioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren menpeko ikastetxeen sare publikoan sartzekoa	98.01.19	151/13084 98.02.06

1.2. Lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpena
Urriaren 25a Euskal Autonomi Erkidegoaren Egun Deklaratzeari buruzkoa	97.01.30	FALT	114/7597 97.04.18

1.3. Herri ekimenezko Lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpena
Gizarte Eskubideen Agiritarakoa	96.12.20	Longarte Fdez. de Gamarra J.L. eta beste batzuk	146/12485 97.12.31

2. Nafarroako Parlamentua

2.1. Lege Foral Proiektuak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpena	Espediente zkia.
Hondakin Berezien Kudeaketaren Lege Forala Aldatzen duena	96.3.29	96.4.10	Lege -6/96
Nafarroako 1996ko Kontu Orokorren Lege Foralari buruzkoa	97.9.8		Lege -8/97
Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuen Lege Foralari buruzkoa	97.10.9	98.1.23	Lege -11/97
Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernu eta Administrazioari buruzko apirilaren 11ko 23/1983 Lege Forala Aldatzekoa	97.11.13	97.11.25	Lege -21/97
Bolondresei buruzkoa	97.12.5	97.12.19	Lege -24/97
Errepideko Hiri Garraio Publikoari buruzkoa	97.12.31	98.2.2	Lege -25/97
Iruña Eskualdean Zehar Bidaiarien Garraio Erregularri buruzkoa	97.12.31	98.2.2	Lege -26/97
Nafarroako Kolegio Profesionalei buruzkoa	98.1.26	98.2.2	Lege -1/98
Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzkoa	98.2.5		Lege -2/98
Basoko Fauna eta bere Habitataren Babes eta Kudeaketari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Lege Forala Aldatzekoa	98.2.9		Lege -3/98

2.2. Lege Foral Proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Espedientea
Estatu Kontseiluari buruzko apirilaren 22ko 3/1980 Lege Organikoko 23. Artikulua Aldatzekoa	98.1.27	“Convergencia de Demócratas de Navarra” T.P.	Pro-1/98
Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernu eta Administrazioari buruzko apirilaren 11ko 23/1983 Lege Foraleko 24. Artikulua Aldatzekoa	98.2.3	Nafarroako “Izquierda Unida-Ezker Batua”	Pro-2/98

* OHARRA: Irakurle, lege proiektu hauek 1998ko martxoaren 13an zeuden egoeran agertzen dira tauletan. Litekeena da aldizkariaren argitarapenera bitarteko denboran horietakoren bat lege bihurtu izana.